

## ADISKIDE ETA SENIDE. COMUNIDADES ACOGEDORAS: PREMINA ETA AUKERAK

[1] Bizi dogun aldia, bitxia da, gatxa. Faltan botaten doguz ikutzea, besarkadak, bizkarrean txalo batzuk emotea, bostekoa emotea, ospatzeko, aldarrikapenak egiteko alkartzea.

Eta egoera hain ezkorretik sortu dan abagune hau, aukera bikaina da alkartearen inguruan gogoeta etiteko.

Gure alkarteak, ez ete dira historiako beste aldi batzuetakoak besteko abegitsu? Bakartuago ete gagoz, aurrez aurre jarrita?

Baietz erantzutea erraza bada be, eta liburu-denda, liburutegi eta egunkariak hori berresten dabela emoten dauan entsegu eta hausnarketaz beteta badagoz be, nire ustez, ez da nahiko, beste barik, BAI ala EZ erantzutea.

[2] Argitu beharra dago, lehenengo eta behin, ez dala egoera koiunturala. Pandemia eta beroni aurre egiteko hartu diran neurriak (hartu-emonen gitxitze edo mugatzea kutsatzeak gitxitzeko) ez dira alkarteaz kezkatzera garoezan arrazoi edo eragileak.

Pandemiaren aurretik be, bakardade eta isolamenduaren eraginak gizartearen eta osasun publikoaren arazo barri eta kezkgarritzat hartzen hasi ziran. 2018an, Britainia Handian “Bakardadearen Ministerioa” deitutakoa sortu zan, herrialde horretan 9 miloe pertsonak (biztanleriaren ehuneko 14ak), eta 75 urtetik gorakoen erdiak, eben arazoa zalako.

Bartzelonak Bakardadearen Behatokia dauka.

2018 eta 2019 bitartean, “Bakardadeak / Soledades” egitasmoa garatu zan Gipuzkoan, bakardadearen ingurukoak aztertzeko pertsona nagusiengan.

**Bakardadea**, hauek bereiztuz:

- **Gizarte bakardadea:** bertan behera itzita sentizen diran edo besteen konpainia baltan botaten daben pertsonak.
- **Emozino bakardadea:** ezinbestekoa izan ezkeru norengana jo ez daukien edo uste osoa norengan jarri ez daukien pertsonak.

**Gizarte bakartzea jasateko arriskua**, kasu honetan be era bitakoa:

- Familia sare txikia (tamaina) eta urrin (emozino hurkotasuna) daben pertsonek eta, behar izan ezker sare horren laguntzan konfiantza gitxi daben pertsonek **familia saretik bakartu** egiten dira.
- Adiskide sare txikia (tamaina) eta urrin (emozino hurkotasuna) daben pertsonek eta, behar izan ezker sare horren laguntzan konfiantza gitxi daben pertsonek **adiskide saretik bakartu** egiten dira.

Oraintsu egindako galdeketa baten arabera, Espainiako biztanleen %43,6a gizarte isolamendua jasateko arriskuan dago edo bakarrik sentitzen da; %11,8a egoera bietan batera dago, eta %44,6ak bakarrik dino ez daukela gizarte isolamendua jasateko inongo arriskurik edo ez dala inondik inora bakarrik sentitzen. Hau da, galdeketa erantzun deuten herritarren erdia inguruk era bateko edo besteko bakardadea sentitzen dau edo gizarte isolamenduan egoteko arriskuren bat dau.

Adiskide saretik edo familia saretik bakartzeko arriskua normalean handiagoa izaten da gizonen artean, heziketa-maila baxuagoa daben artean eta, adinean gora egin ahala, gehitu egiten da arrisku hori. Adiskide saretik ez izatea bereziki kezagarria da 65 urtetik aurrera, hau da erretiroa hartzen danetik aurrera. Hirurogeta bost eta hirurogeta hemeretzi urte bitarteko pertsona nagusien laurdena baino gehiago adiskide saretik bakartuta dago eta kopuru hori ehuneko erdi ingurura arte igoten da 80 urtetik gorako artean.

Adiskide saretik bakartuta dagozanen kopurua familia saretik bakartuta dagozanena baino altuagoa da (% 23,3 eta %13,3). Hau da, familia adiskideak baino gehiago azaltzen da eta bizitzan zehar gizarte bakartzea jasateko arriskutik gehiago babesten dau.

Egia da zahartzaroan izaten dabena eragin gehien bakardadeak eta isolamenduak baina ezin da ahaztu behar gertaera bi horreek beste biziari batzuetan be agertzen dirala, hau da, tarteko adinetan. Esate baterako, 40 eta 65 urte bitarteko pertsonen %30ak gizarte bakartzea esperimendatzen dau eta %35ek baino gehiagok bakardade emozionala sentitzen dau. Biziari horretan beste edozeinetan baino okupatuago gagozala eta beste pertsona batzuk lotzen gaituen gizarte egitekoak (aitatasuna/amatasuna, lana,...) izaten doguzala kontuan hartuta, adin horretako pertsonak nagusitzen diranean bakardadeak eurengan izan leiken bilakaeraren inguruan ezkor izan gaitezke.

[3] Zer gertatzen jaku? Zelan izan leike, belaunaldien arteko, lurraldeen arteko, herrialdeen arteko konexinoa argien esperimentatzen dogun aldian, fisikoki zein teknologiaren bidez konektatzeko erraztasun gehien dogun aldian, hain bakarrik sentitzea (ez dakit beste batzuetan baino gehiago) eta horrek hainbeste sufriaraztea?

Soziologoa naz, eta gizarte arazoak arazo soziologiko bihurtzeko entrenatuta nago, eta hori gertatzen ari jakuna ulertzen lagundu deikeguen egiturazko eragileetan arreta jarriz egiten dot batez be. Egiturazko eragileak aitutzen dodazanean, zera esan gura dot: nire ustez, arrazoiak ez dirala aldaketa psikologikoetan (hartu-emonerako gaitasuna galdu izan bagendu lez) edo mutazino antropologikoetan (izaki guztiz egoista bihurtu gara eta ez dogu onartzen gure askatasun pertsonala mugatu leiken oztoporik txikiena be eta, zalantza barik, giza lokarriak, nolabait, gure subiranotasun indibidualaren muga dira) bilatu behar.

Orain dala 50, 100 edo 1.000 urte ginan gizaki berak garalakoan nago, autortzeari, zaintzeari, ulermenari, adiskidetasunari eta maitasunari dagokienez, beharrian berak daukaguzalakoan. Beti lez, besteak ezinbesteko doguz.

Joan Tronto politologoak gogoratzen deusku: “Zainketaren etika, bizitza pertsonal, sozial, moral eta politikora egiazkotasun jakin batetik hurreratzea da, hau da, gizon eta emakume guztiok zainketa behar eta jasoten dogula eta beste batzuei emoten deutsegula. Zainketazko hartu-emona gizon eta emakume lez bereizten gaituan alderdietako bat da.

Gizon eta emakumeok gizarte lokarri gara. Dalako egun batean, bera lako norbanako burujabeakaz hitzarmena sinatzea erabagitzen dauan norbanako burujabearen mitoa, guzurra da. Liberalismoaren sorrerako mitoa da, baina, horixe bakarrik, mitoa: gizarteko izatea aukeratzea bagendu lez! Gizon eta emakumeok, izaki nahitaez sozialak gara. Beste kontu bat da, besteakazko ze giarte hartu-emon aukeratzen dogun: lankidetzarako, lehiarako, esplotazinarako, maitasunerako, autormenerako, ezabapen fisikorako... hartu-emona. Baina ez dago ‘self made man’ dalakorik, bere buruaren garapen eta heldutasuna beste inoren eragin barik jadetsi dauanik. Beste batzukaz “egiten” gara. Gainera, izaki erabat ahulak gara eta, horregaitik, menpeko. Pandemia aldi honetatik zeozer ona atara daikegu, hain zuzen be, gure gizarte izaeraren autorpen eta berrespena.

Gure gizatasuna ez bada, zer ete da azken 50 edo 100 urte honeetan aldatu dana?

Gure bizitzak bizi doguzan inguru instituzionala da aldatu dana. Aldatu dana, gizartea da eta honek, hainbat alderditan, errazago egin deuskuz lokarriak (edo hainbat

lokarri) eta, beste batzuetan, askoz ere korapilatsuago bihurtu ditu, eta hainbat kasutan, ia ezinezko be egin dituala esango neuke.

Gero eta hedatuago dan joeraren haritik, gizarte txikietatik, lurralde eremuak mugatuta eukiezan lekuetatik, dana gertu egoan inguruetatik, hartu-emon errepikatu eta egunerokoetatik, bestelako gizarte handiagotara igaro gara eta honeetan konplexutasuna, deskokapena, zatiketa, presak... nagusitzen dira.

Gai korapilatsua da eta sinplifikatzeko arriskua onartuko dot, baina karikatura hutsean geratzeko asmo barik.

Jarri daigun arreta, une batez, hainbat erakunde publikok eta gizarte erakundek bakardadeak eta isolamenduak eragiten dabezan prozesuetatik aurreko egoerara bihurtzeko hartzen diharduen neurrietan.

Esate baterako, 2018ko urtarrilean, “Madril zainketen uria egitasmoa” dalakoaren barruan aurkeztutako “nahi bako bakardadearen prebentzinoa” ekimenean jarri daigun arreta.

Madrilen, auzoetako biztanleak bakardadea jasaten daben nagusiak antzemateko jardueran parte hartzera bultzatzea da xedea. Auzo eta alkarte alderdi horrek, auzoetako biztanleak bakartasunez jantzitako kasuak hautemateko lanean – “antenak” deitutakoak- eta laguntzarako sareetan inplikatzin ditu. “Botikariak, dendariak, edo nasusiakaz hartu-emona daben pertsona guztiek, eurengana egunero joateari itzi deutsan pertsonarik, edo beste inor baino baztertuago dagoan norbait edo bakartasun-zantzurik erakusten dauan inor dagoan antzeman daiela da asmoa”.

Ba, oso ondo deritxot, baina proposamen barrizaille honek aspaldiko kontu bat gogorarazten deust: herriko edo auzoko bizitza deitzen jako.

Oso ondo azaltzen dau Susan Pinker psikologo kanadiarrak “Herrixka ondorioa” (The village effect) 2014ko liburu interesgarrian. Liburuan azaltzen dauanez, buruz buruko harremana ezinbestekoa da ikaskuntzarako, zorionerako, erresilientziarako eta bizitza-luzerako. Lotura pertsonal bigunagoak be garrantzitsuak dira, gure gertuko harremanakaz tartekatzen diralako, inguruan gure bizitzetan eragin sendatzaileak dituan “herrixka” pertsonala eratzeke.

Baina, ikusi daigun orain, zelakoak diran pertsona gehienak bizi diran uriko eremuak, edo lanean ari diranen lan-erritmoak, edo, biharamunak dakartsen ziurgabetasunak lotuta, gizarte baztarketa jasateko arriskuan bizi diranen egoneroko larritasunak.

Inguruabar horreek, “herrixka ondorioa” ahalbideratzen ete dabe, buruz buruko hartu-emon patxadatsu eta maitetsuaz gozatzeko aukera emoten ete deuskue?

Bistakoa da ezetz.

Eta hauxe da, nire ustez, funtsezko arazoa. Kontua ez da automata egoista, mamu indibidualista bihurtu garala. Gure gizarte alderdia gauzatzeko, sendotzeko eta dastatzeko baldintza material, espazial eta denporazkoak gero eta eskasagoak dirala da arazoa.

Gizarte, alkarte lokarri sendoak eratzeko eta horreei eusteko, ezinbestekoa da eremu egokiak, sasoi egokiak eta nahikotasunezko baldintza materialak (ekonomikoak) izatea.

Baina benetan gertatzen dana, beste hau da: laneko denporek talka egiten dabela umeak haztearen eta herritarren partaidetzaren denporakaz eta doako bategiterako eremuak merkataritzaren barruan geratzen dirala. Ez dogu ez denporarik ezta eremurik be, bategite pozgarri eta askea bizitzeko, bategitea bera helburutzat hartzeko.

FRATELLI TUTTI: “Auzo herrikoi batzuetan, oraindik bizi da “auzoteria” sena, eta lagun bakotzak auzotarraren ondoan egon eta lagundu egin behar deusala sentitzen dau naturaltasunez. Leku honeetan eusten jake alkarte balio horreei, gertutasunezko harremanak bizi dabez doakotasun, alkartasun eta alkarrekikotasunezko ikutuakaz, auzoaren “gu” senetik. Benetan egokia litzatekela herrien arteko auzotasun adeitsua eratzeko gauza diran gertuko herrialdeen artean hori berori bizitzea”.

Badira, orain dala sasoi batetik hona, bizikidetza eta lankidetza berregiteko edo sendotzeko paradigma lez “auzoko abertzaletasuna” edo “auzozaletasuna” proposatzen dabenak. Ez da leku txarra (leku fisikoa eta leku mentala) hasteko. Gaur egun be, makina bat gizarte aldaketari aurre egin behar izanda be, kristau alkarte eta ospakizunek auzo eta herrien eremuetan sendo finkatuta jarraitzen dabe. Askotan, hainbat inguruabarren eraginez itzi egin dauan beste hainbat erakundek (eskola, ohiko merkataritza, familiako medikua,...) ez bezala, Eleiza da herrixka edo auzoko bizitza hori gogora ekarten deuskun ia bakarra.

[4] Orduan, alkartera itzultzea da egin behar doguna? Richard Sennetten esanetan, hiru era dagoz erreparazinoa egiteko: “Objektuak barri itxura izan daiala, objektuaren eraginkortasuna hobetu edo objektua erabat aldatu. Hizkera teknikoan, honeek dira

hiru estrategiak: barrizatzea, birgaitzea eta berreratzea. Lehenengoak objektuaren jatorrizko egoera kontuan hartzen dau; bigarrenak zatiak edo materialak hobetu egiten ditu itxura zaharrari eutsiz; hirugarrenak, konpontzen dan bitartean, objektuaren itxura eta erabilera barria irudikatzen dau. Konpontzeko estrategia guztiak apurtu dana konpondu egin daitekela dinoan hasierako ideia menpe dagoz”.

Konpondu ete daiteke alkartea? Baietz uste dot. Horretarako, ados jarri behar dogu alkartea hitzari emongo deusagun adieran.

Eginkizun honetan, baliagarri izan daiteke Baumanek alkarte estetikoaren eta alkarte etikoaren artean egiten dauan bereizketa:

- “Kideen artean sortzen diran lokarriak, azalekoak dirala eta noizbehinka estutzen dirala da alkarte estetikoaren ezaugarri nagusia. Lokarriak, erraz apurtu daitezke eta gitxi irauten dabe (...), egia esan, ez dabe lotzen. Hitzez hitz, «ondorio bako lokarri» dira”.
- Honeen parean, alkarte etikoa “epe luzerako konpromisoez, eskubide besterenez, saihestu ezineko betebeharez ehunduta dago”. Beti adi, hori bai, «alkarte etikoaren» eremua zabaltzeko, eta sekula ez murrizteko”. Alkarte etikoa, ikuspuntu horretatik, “norbanakoen” alkartea litzateke baina, aldi berean, zabalik dagoan eta “banatzearen eta alkar zaintzearen” ikuspuntutik eratuta dagoan alkartea”.

Honan bereizi izan dodaz alkartearen ideal guztiz desbardin bi:

- Alde batetik, ikuspuntu unionista eta homogeneizatzailetik, norbanakoaren nortasuna (“gu geu!”) alkarte eraikuntzaren balio eta helburuen gaintik lehenesten dauan ikuspuntutik sustatzen dan batasuna bizi dan alkartea (Trampen edo bestelako populismoek aldarrikatzen dabena, alkarte nazionala barriro be handi, edo sendo, edo batu, edo seguru egiteko helburua lortuz, zergaitik edo zertarako pentsatu barik). Babes-alkarteak dira, bildurtiak, itxiak, baztertzailleak.
- Bestetik, barruko konplexutasun eta aniztasunari, kanpoko errealidadeei eta alkarteari berari zabaltzearen ikuspuntutik irudikatutako eta eraikitako alkartea legoke. Ez da bere baitan ixten, ahalik eta gehienak barne hartzen, abegitsu, harreragile, solidario, zerbitzari izaten saiatzen da.

Barriztatzeko ze estrategiatatik? Ez behintzat berrezarpen edo errehabilitazioaren bidez, ezinezko eta nahi ez izateko atzera egitea, alkarte itxietara, babes-alkarteetara, alkarte baztertzailleetara itzultzea bilatuz.

Berreratzearen bidez esango neuke, hau da, alkarte sasoia eta leku honetarako barriro irudikatuz.

Marina Subirats soziologoak 'utopia erabilgarriari' egotzi eutsan Katalunian azken urteetan bizi izan dan independentismoaren aldeko babesen gehitze handia. Gauza bera esan daiegu azken urteetan munduan ugaritu dan bestea hainbat "ismori" buruz be. Atzean geratzeko, ikusezin bihurtzeko, bazterkin bihurtzeko hainbeste jenteren bildurraren gainean sortu dan hainbeste populismori buruz behintzat esan daiteke.

"Alkarte abegitsuak" izan leike nahi bako bakardadearen epidemia gainditzen lagunduko deuskun 'utopia erabilgarri', baina baita gizarteratutako pertsonen munduaren eta baztertuen, nagusien, eta gazteen, herrialde aberastuen eta txirotuan arteko isolamenduaren pandemia izugarri be, gero eta desbardinagoa dan mundu global honetan?

Baleiteke, baina alkarte abegitsu, ireki eta barneratzaile horreek eraikitzeke doguzan oztopoez jabetu behar dogu nahitaez; ez dogu ahaztu behar hedatuta dagoan bildur hau: etxeak zabaldu ezkerreko etxe barik geratu gaitkekezala.

"Arrotzak ate-joka dituan" munduan (Bauman, 2016) eta, horrezaz bainera, ondoz ondo, atez ate, arrotzak bizi diran munduan, itxieraren ordezkoko aukera ezin da jentea kale gorrian bizitzera kondentatzea izan. Etxea galdu izanak eragindako atsekabeari eta berreskuratzeko eskaerari ezin jako hormak altxatuz eta ate eta leihoak blokeatuz erantzun; ezin da egoitza oro, kide-tasun-sen oro, familia-sen oro suntsituz erantzun.

Alkarte berreratu, beharbada Gianni Vattimoren proposamen probokatzailera garatuz: "unibertsalistentik abegira igaro". Abegitsu izateko, ezinbestekoa dot etxea izatea, baina baita harreraren, autortzaren eta entzutearen kultura be.

Danok ezagutzen doguz, besteak beste, hainbat bider erabili doguzalako, ondorengo esamoldeok: "nire etxera gonbidatzen zaitut", "zeure etxean lez sentitu zaitez", "zeure etxean zagoz". Harrera, irekitasuna, abegia adierazten daben esamoldeak dira. Baina ez dabe zehatz-mehatz hori esan gura: Mailaketa adierazten dabe, gitxienez inplizitua, norbere etxearen zabalitzean. Lehenengoak, "nire etxera gonbidatzen zaitut", argi eta garbi erakusten dau etxearen jabe legitimoaren eta honek bere

borondate hutsez gonbidatzen dauanaren arteko aldea; bigarrenak, “zeure etxean lez sentitu zaituz”, beste urrats bat emoten dau, gonbidatua desbardin bihurtuz, eta jabeak dituan eskumenen antzekoez gozatzen bultzatzen dau; hirugarrenak “zeure etxean zagoz”, bizilekua konpartitzeko ekintza hori betetasunera daroa, pertsona biak bardin eginez.

“Zeure alkartean zagoz”. Zeure herrialdean zagoz. Zeure lurraldean zagoz.

Frantzisko aita santuak, FRATELLI TUTTI entziklika LAUDATO SI aurreko entziklikagaz lotuz, zera dino: “Inguratzen eta barne hartzen gaituan mundua zaintzea, geure burua zaintzea da. Baina danona dan etxean bizi dan “gu” dalakoaren gainean eraiki behar dogu geure burua”.

Bere aldetik, lehen aitatu dogun Joan Trontok eta Berenice Fisher autoreak honan definitzen eben zaintzea orain dala urte batzuk: “Espezie-jarduera da, gure «munduari» eusteko, jarraipena emoteko eta konpontzeko, bertan ahalik eta ondoen bizi gaitez. Mundu horrek gure gorputzak, gure izakiak eta gure ingurua, biziaren euskarri dan sare konplexuan korapilatzen bilatzen dogun guztia, barne hartzen ditu”.

Kontuan hartu daigun: auzo eta herrietan finkatutako alkarte gara, besteak beste, alkarte zaintzaile izatera deituak. Ez dot uste txarto kokatuta gagozanik lekuan lekuko mailan zein maila globalean alkarte abegitsuak eraikitzen erronkari aurre egiteko. Alderantziz, kristau alkarteen DNA horixe dala esatera ausartzen naz.

Eta, zergaitik aprobetxatu ez Garizuma aldia ikuspuntu honetatik geure burua aztertzen?



## COMUNIDADES ACOGEDORAS: NECESIDAD Y POSIBILIDADES

[1] Vivimos tiempos extraños y difíciles. Añoramos el contacto, los abrazos, las palmadas en la espalda, los apretones de manos, juntarnos para celebrar, para reivindicar.

Y esto, que surge de una situación tan negativa, es una excelente ocasión para repensar la comunidad.

¿Son nuestras comunidades hoy menos acogedoras que en otros momentos de la historia? ¿Estamos más solas, más enfrentadas?

Aunque es fácil responder que sí, y las librerías, bibliotecas y periódicos están llenas de ensayos y reflexiones que parecen afirmarlo, me parece que un simple SÍ o NO sería una respuesta muy insuficiente.

[2] Hay que empezar aclarando que no se trata de una situación coyuntural. La pandemia y las medidas adoptadas para combatirla (la disminución o limitación de los contactos para reducir los contagios) no son la causa o el detonante de nuestra preocupación por la comunidad.

Ya antes de la pandemia los efectos de la soledad y el aislamiento social se estaban abordando como un nuevo y preocupante problema social y de salud pública. En enero de 2018 Gran Bretaña impulsó un denominado “Ministerio de la Soledad”, problemática que afectaba a 9 millones de personas en ese país (el 14% de la población total), y a más de la mitad de las personas mayores de 75 años.

La ciudad de Barcelona tiene un Observatorio de la Soledad.

Entre 2018 y 2019 se desarrolló en Gipuzkoa el proyecto "Bakardadeak / Soledades", para el estudio de la soledad en las personas mayores.

**Soledad**, distinguiendo entre:

- **soledad social:** personas que se sienten abandonadas o echan de menos la compañía de los demás;
- **soledad emocional:** no tener suficientes personas a las que recurrir o en las que confiar plenamente en caso de necesidad.

**Riesgo de aislamiento social**, también de dos tipos:

- Las personas cuya red familiar es pequeña (tamaño), lejana (cercanía emocional) o suscita poca confianza de prestar apoyo en caso de necesitarlo sufren **aislamiento de la red familiar**.
- Las personas cuya red de amistad es pequeña (tamaño), lejana (cercanía emocional) o de poca confianza para prestar apoyo sufren **aislamiento de la red de amistad**.

Según una encuesta, reciente un 43,6% de la población española está en riesgo de aislamiento social o se siente sola; un 11,8% está en las dos situaciones a la vez, y solo un 44,6% no declara ningún tipo de riesgo de aislamiento social o sentimiento de soledad. Es decir, más de la mitad de la población encuestada siente algún tipo de soledad o tiene algún riesgo de estar aislada socialmente.

El riesgo de aislamiento social, ya sea de la red de amistad o la red familiar, es generalmente mayor entre los hombres, entre las personas con menor nivel educativo y va aumentando con la edad. La falta de red de amistad es especialmente preocupante a partir de los 65 años, edad que coincide con la jubilación. Más de un cuarto de los mayores de entre 65 y 79 años están aislados de la red de amigos y son casi la mitad entre los mayores de 80 años.

El aislamiento de la red de amistad es mayor que el aislamiento de la red familiar (23,3% y 13,3%). En otras palabras, la familia está más presente que las amistades y protege más del riesgo de aislamiento social a lo largo de la vida.

Pero si bien es cierto que la vejez es la etapa del ciclo vital en la que más inciden la soledad y el aislamiento, es importante subrayar que ambos fenómenos también están presentes en edades intermedias del ciclo vital. En torno a un 30% de las personas de 40 a 65 años experimenta aislamiento social y más del 35% sufre soledad emocional. Teniendo en cuenta que ese es el momento del ciclo vital en el que estamos más ocupados y desempeñamos roles sociales que nos vinculan a otras personas (paternidad, trabajo...), se abre un panorama pesimista sobre la evolución de los niveles de soledad de esas personas cuando se hagan mayores.

[3] ¿Qué nos está pasando? ¿Cómo es posible que en la época en la que más claramente experimentamos la interconexión entre generaciones, entre territorios, entre naciones, la época en la que más facilidades tenemos para conectarnos física y

tecnológicamente, sea también la época en la que (no sé si más que en otras) nos sentimos tan solas y solos, y sufrimos tanto por ello?

Soy sociólogo y estoy entrenado para convertir los problemas sociales en problemas sociológicos, y esto lo hago fijándome sobre todo en factores estructurales que nos ayuden a comprender lo que nos pasa. Con esto de factores estructurales quiero decir que no creo que las razones haya que buscarlas en cambios psicológicos (como si hubiéramos perdido la capacidad de relacionarnos) o en mutaciones antropológicas (nos hemos convertido en seres absolutamente egoístas, que no soportamos el menor lastre que limite nuestra libertad personal, y no cabe duda de que los vínculos humanos son, en cierto modo, una limitación a nuestra soberanía individual).

Creo que seguimos siendo, en lo esencial, los mismos seres humanos que éramos hace 50, 100 o 1.000 años, con similares necesidades de reconocimiento, cuidado, comprensión, amistad y amor. Necesitamos de las demás y de los demás tanto como siempre.

Nos lo recuerda la politóloga Joan Tronto: “Una ética del cuidado es una aproximación a la vida personal, social, moral y política que parte de la realidad de que todos los seres humanos necesitamos y recibimos cuidado y damos cuidado a otras y otros. Las relaciones de cuidado son parte de lo que nos identifica como seres humanos”.

Los seres humanos somos vínculo social. El mito del individuo independiente, que un buen día se plantea firmar un contrato con otros individuos igualmente independientes para constituir una sociedad es, simplemente, una falacia. Se trata del mito fundacional del liberalismo, pero no es más que eso, un mito: ¡cómo si pudiéramos elegir no ser sociales! Los humanos somos seres inevitablemente sociales. Otra cosa es qué tipo de relaciones sociales escogemos mantener con las demás y los demás: relaciones de cooperación, de competencia, de explotación, de amor, de reconocimiento, de eliminación física... Pero no existe nada parecido al self made man, a la mujer o al hombre “hecho a sí mismo”. Nos hacemos con otras y con otros. Somos, además, seres radicalmente vulnerables y, por ello, dependientes. Si algo bueno podemos sacar de estos tiempos de pandemia es, justamente, el reconocimiento y la afirmación de nuestra condición social.

¿Qué es lo que ha cambiado en estos últimos 50 o 100 años, si no es nuestra humanidad?

Lo que ha cambiado es el entorno institucional en el que vivimos nuestras vidas. Lo que ha cambiado es la sociedad, que en algunos aspectos ha hecho más fáciles los vínculos (o algunos vínculos) y en otros los ha vuelto mucho más complicados, a veces diría que prácticamente imposibles.

Crecientemente hemos ido pasando de sociedades pequeñas, territorialmente localizadas, donde todo estaba relativamente cerca, de contactos repetidos y cotidianos, a sociedades cada vez más grandes y complejas, deslocalizadas, fragmentadas, aceleradas.

Se trata de un tema complejo y voy a asumir el riesgo de caer en la simplificación, pero espero no en la caricatura.

Os propongo que nos fijemos un momento en las medidas que desde muchas instituciones públicas y entidades sociales se están proponiendo para intentar revertir los procesos que generan soledad y aislamiento.

Por ejemplo, fijémonos en la iniciativa “Prevención de la soledad no deseada”, presentada en enero de 2018 dentro del Plan Madrid Ciudad de los Cuidados.

Madrid implicará a los vecinos de los barrios en la detección de mayores que sufren de soledad. La vertiente vecinal y comunitaria implica involucrar a los vecinos de los barrios en la detección de casos de soledad -las llamadas “antenas”- y en la creación de redes de apoyo. “La idea es que el farmacéutico, el comerciante o todas esas personas que están en contacto con los mayores, puedan detectar que un vecino ya no acude todos los días, o está más abandonado o cualquier signo de una situación de soledad”.

Vaya, pues me parece muy bien, pero esta novedosa propuesta me recuerda a algo muy viejo: se llama vida de pueblo o de barrio.

Lo explicaba muy bien la psicóloga canadiense Susan Pinker en un interesante libro de 2014 titulado “El efecto aldea” (The Village Effect) en el que muestra cómo y por qué el contacto cara a cara es crucial para el aprendizaje, la felicidad, la resiliencia y la longevidad. También los lazos personales más laxos son importantes, ya que se combinan con nuestras relaciones cercanas para formar una “aldea” personal a nuestro alrededor, que ejerce efectos sanadores sobre nuestras vidas.

Pero ahora pensemos en cómo son los espacios urbanos en los que vive la mayoría de las personas, o en los ritmos de trabajo de quienes tienen un empleo, o en las

angustias diarias de quienes viven en riesgo de exclusión, atenazadas por la incertidumbre ante el mañana. ¿Diríamos que todas estas son circunstancias que facilitan el “efecto aldea”, que nos permiten disfrutar del contacto cara a cara, pausado, afectivo?

Es evidente que no.

Y este es, en mi opinión, el problema esencial. No es que nos hayamos convertido en autómatas egoístas, en monstruos individualistas. El problema es que las condiciones materiales, espaciales y temporales para poder practicar, fortalecer y degustar nuestra dimensión social son cada vez más precarias.

La construcción y el mantenimiento de vínculos sociales sólidos, de comunidad, necesita de espacios adecuados, de tiempos oportunos y de condiciones materiales (económicas) de suficiencia.

Pero la realidad es que los tiempos del empleo chocan con los tiempos de la crianza y de la participación ciudadana, los espacios para el encuentro gratuito se mercantilizan. No tenemos tiempo ni espacios que faciliten o animen al encuentro gozoso, libre, como un fin en sí mismo.

FRATELLI TUTTI: “En algunos barrios populares, todavía se vive el espíritu del “vecindario”, donde cada uno siente espontáneamente el deber de acompañar y ayudar al vecino. En estos lugares que conservan esos valores comunitarios, se viven las relaciones de cercanía con notas de gratuidad, solidaridad y reciprocidad, a partir del sentido de un “nosotros” barrial. Ojalá pudiera vivirse esto también entre países cercanos, que sean capaces de construir una vecindad cordial entre sus pueblos”.

Hay quienes llevan tiempo proponiendo como paradigma para reconstruir o reforzar la convivencia y la cooperación el “patriotismo de barrio” o el “barrionalismo”. No es un mal lugar (lugar físico y lugar mental) para empezar. Todavía hoy, a pesar de todos los cambios sociales que afrontamos, las comunidades y las celebraciones cristianas continúan firmemente asentadas en el espacio de los barrios y los pueblos. Muchas veces la iglesia es casi el único recordatorio de esa vida de aldea o de barrio que otras instituciones (la escuela, el comercio tradicional, el médico de familia...) han ido abandonando por diversas circunstancias.

[4] Entonces, ¿de lo que se trata es de volver a la comunidad? Richard Sennett señala que hay tres maneras de realizar una reparación: “Hacer que el objeto parezca

nuevo, mejorar su operatividad o modificarlo por completo. En la jerga técnica, estas tres estrategias son la restauración, la rehabilitación y la reconfiguración. La primera se rige por el estado originario del objeto; la segunda mejora partes o materiales con la preservación de la forma antigua; la tercera reimagina la forma y el uso del objeto en el curso de la reparación. Todas las estrategias de reparación dependen de la idea inicial de que lo que se ha roto puede arreglarse”.

¿Puede arreglarse la comunidad? Yo creo que sí. Para ello, debemos empezar por ponernos de acuerdo en cuál es el sentido que damos a la palabra comunidad.

En esta tarea, puede sernos de utilidad recuperar la distinción de Bauman entre comunidad estética y comunidad ética:

- “La característica común a las comunidades estéticas es la naturaleza superficial y episódica de los vínculos que surgen entre sus miembros. Los vínculos son desmenuzables y efímeros [...] en realidad no atan. Son, literalmente, «vínculos sin consecuencias»”.
- Frente a estas, la comunidad ética está “tejida de compromisos a largo plazo, de derechos inalienables y obligaciones irrenunciables”. Siempre atentos, eso sí, a “ampliar el ámbito de la «comunidad ética» en vez de reducirlo”. Una comunidad ética sería, desde esta perspectiva, una comunidad “de individuos” paradójicamente abierta, construida “a partir del compartir y del cuidado mutuo”.

En alguna otra ocasión yo he diferenciado entre dos ideales de comunidad muy distintos recurriendo a este juego de palabras:

- Por un lado, estaría la comUNIDAD: pensada y construida desde una perspectiva unionista, homogeneizadora, que privilegia el sujeto identitario (“¡Nosotros”) frente a los valores y los fines de la construcción comunitaria (un poco al modo del trumpismo y populismos similares, que enarbolan la bandera de volver a hacer grande, o fuerte, o unida, o segura la comunidad nacional sin preocuparse de por qué o para qué). Se trata de comunidades defensivas, temerosas, cerradas, excluyentes.
- Por otro lado, estaría la COMUNidad: imaginada y construida desde una perspectiva abierta a la complejidad y a la diversidad internas, también a las realidades exteriores a la propia comunidad. No se cierra, aspira a ser lo más incluyente posible, hospitalaria, acogedora, solidaria, servicial.

¿Mediante qué estrategia de reparación? No, desde luego, mediante la restauración o la rehabilitación, pretendiendo una imposible y muchas veces indeseable vuelta atrás, a comunidades cerradas, defensivas, excluyentes.

Yo diría qué mediante su reconfiguración, es decir, reimaginando la comunidad para este tiempo y este lugar.

La socióloga Marina Subirats atribuyó a una ‘utopía disponible’ el gran aumento del apoyo al independentismo que se ha vivido en Catalunya los últimos años. Podemos decir lo mismo de otros “ismos” que proliferan en el mundo en los últimos años. Desde luego, podemos decirlo de muchos de los populismos existentes, apoyados sobre el temor de tanta gente a quedarse atrás, a ser invisibilizada, a convertirse en población sobrante.

¿Puede ser la “COMUNidad acogedora” la utopía disponible que nos ayuda a superar la epidemia de soledad no deseada, pero también la terrible pandemia del aislamiento entre el mundo de las personas integradas y las excluidas, de las personas mayores y de las jóvenes, de los países enriquecidos y de los empobrecidos en este mundo global cada vez más desigual?

Puede, pero hay que ser muy conscientes de cuáles son los obstáculos para construir estas comunidades acogedoras, abiertas, inclusivas: el miedo a que abriendo las puertas acabemos quedándonos sin nuestra propia casa.

En un mundo no sólo de “extraños llamando a la puerta” (Bauman, 2016), sino de extrañas y extraños viviendo puerta con puerta, la alternativa al cierre no puede ser la condena a la intemperie. La respuesta al lamento por la pérdida del hogar y a la demanda de recuperarlo mediante la erección de muros y el bloqueo de puertas y ventanas no puede ser la demolición de toda residencia, de todo sentimiento de pertenencia, de toda sensación de hogar.

Reconfigurar la comunidad, tal vez, desarrollando la provocadora propuesta de Gianni Vattimo: “pasar del universalismo a la hospitalidad”. Para ser hospitalario preciso de una casa, pero también de una cultura de la acogida, el reconocimiento y la escucha.

Todas y todos estamos familiarizados, porque las hemos utilizado en muchas ocasiones, con las expresiones siguientes: “te invito a mi casa”, “siéntete como si estuvieras en tu casa”, “esta es tu casa”. Son expresiones de acogida, de apertura, de hospitalidad. Pero no significan exactamente lo mismo: indican una gradación

cuando menos implícita en la apertura del propio hogar. La primera, “te invito a mi casa”, marca claramente la diferencia entre la persona legítimamente propietaria del hogar y aquella a la que esta invita en ejercicio exclusivo de su voluntad; la segunda, “siéntete como si estuvieras en tu casa”, supone un paso más, convierte a la persona invitada en algo diferente, la anima a disfrutar de prerrogativas similares a las de la persona propietaria; la tercera, “esta es tu casa”, lleva el acto de compartir la residencia plenamente, igualando en la práctica a ambas personas.

“Esta es tu comunidad”. Este es tu país. Esta es tu tierra.

En FRATELLI TUTTI el papa Francisco afirma lo siguiente, vinculando esta encíclica con su anterior LAUDATO SI: “Cuidar el mundo que nos rodea y contiene es cuidarnos a nosotros mismos. Pero necesitamos constituirnos en un “nosotros” que habita la casa común”.

Por su parte, la ya citada Joan Tronto, junto con otra autora, Berenice Fisher, definían así el cuidado hace ya unos años: “Una actividad de especie que incluye todo aquello que hacemos para mantener, continuar y reparar nuestro «mundo» de tal forma que podamos vivir en él lo mejor posible. Ese mundo incluye nuestros cuerpos, nuestros seres y nuestro entorno, todo lo cual buscamos para entretrejerlo en una red compleja que sustenta la vida”.

Fijémonos bien: somos comunidades asentadas en barrios y pueblos llamadas a ser, entre otras cosas, comunidades cuidadoras. Yo diría que no estamos mal posicionadas para afrontar el reto de construir comunidades acogedoras tanto en la dimensión local como en la global. Al contrario, me atrevo a decir que este es el ADN de las comunidades cristianas.

¿Y si aprovechamos este tiempo de Cuaresma para revisarnos desde esta perspectiva?